

1.- HEZKUNTZA SAILAK IGEEI BANATZEN DIZKIEN DIRU LAGUNTZAK. 2012. URTEA

Irailaren 4an eman zuten argitara, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, IGEEk 2012an egingo dituzten jardueretarako diru laguntzen deialdiaren agindua. Eskariak aurkezteko epea urriaren 4an amaituko da, eta dokumentazioa bizkorrago aurkezteko eta balizko gorabeherak garaiz konpondu ahal izateko, IGEEi gomendatzen diegu irailaren 26a baino lehen bidal dezatela beren eskaria BAIKARARA.

Eusko Jaurlaritzak aurrekontuetan egindako murrizketak direla eta, 2012an %10 murriztuko dira diru laguntzak: hala, 780.000 euro banatu zituzten 2011n, eta 720.000 ezarriko dituzte, 2012rako. Horrek esan nahi du are gehiago jaitziko dela IGEEen diru sarreraren zenbatekoa. BAIKARAK 2011ko azaroaren 12an Beasainen egindako Batzar Orokorrean gai horri buruzko azterketa egin zen, eskua baikeuen aurreikusita zeuden murrizketei buruzko informazioa; eta, azken ikasturteetan Federazioaren kontuetan superabita zegoela ikusirik, Zuzendaritza Batzordearen proposamenari jarraituz, erabaki zen erreserba funts bat sortzea, krisi garaian IGEEi laguntza ekonomikoa eman ahal izateko.

Akordio hori betez, BAIKARAK 2011n jasotako diru laguntzen eta 2012an jasoko dituzten diru laguntzen arteko aldea ordainduko die IGEE guztiei. Guztira, 17.000 bat euro izango dira; izan ere, federazioko kide diren IGEEk 173.000 euro jaso zituzten 2011n diru laguntzetan. Beraz, eta gastuen aurreikuspenak kontuan hartuta, IGEEk 2011n jasotako zenbateko bera jasoko dute (Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza + Baikararen ekarpena).

Diru laguntzak justifikatzeari eta haiek kobratzeari dagokienez, aipatu beharra dago diru laguntzaren %75 ordainduko dela, lehenik, EHAA argitaratutakoan (abendua aldera izango da, aurreikuspenen arabera). Diru laguntzak justifikatzeko, III. eranskina bete behar da, eta jatorrizko fakturak aurkeztu behar dira; horretarako epea 2013ko urtarrilaren 15ean amaituko da. Gainerako %25a justifikazioa aurkeztutakoan ordainduko dute.

2.- BAIKARA FEDERAZIOAREN ZERBITZUAK

BAIKARA FEDERAZIOAK bere bazkide diren IGEEi eskaintzen dizkien zerbitzuak gogorarazi dira; hain zuzen, bilera banatutako orrietan adierazita daude. Era berean, gogorarazi da Federazioaren orrialdean ere (www.baikara.org) informazio ugari dagoela, zerbitzuei nahiz IGEEen intereseko beste hainbat gairi buruzkoa.

Zerbitzuen atalean, gurasoentzako formazio eskaintza nabarmendu da, bereziki (dokumentu atxikietan azalduta dago, xeheago).

3.- 2012-2013 IKASTURTERAKO LAN PLANGINTZA

3.1. Eskualde bileren egutegia.

Iraileko bilerez gainera, 2012-2013 ikasturtean beste bi eskualde bilera egingo dira, urtarrilean eta maiatzean.

3.2. Ohiko Batzar Orokorra:

Azaroaren 10ean izango da, Beasaingo Loinazpe Ikastetxean.

4.- HAUTESKUNDEAK: ESKOLA KONTSEILUAK ETA OOG

Irailaren 10ean argitaratu zen Eskola Kontseiluak-OOGak aukeratzeko hauteskunde deialdiaren agindua. Hauteskundeak urriaren 15aren eta 18aren artean egin behar dira, eta Eskola Kontseilu berria azaroaren 5etik 9ra bitartean osatu beharra dago. Hauteskundeei dagokienez, kontuan hartu beharrekoak dira ohar hauek:

- Hautagaiak aurkezteko epea irailaren 19tik 28ra egongo da zabalik.
- Edozein guraso izan daiteke hautagai, baina komeni da IGE bakoitzak bere hautagaiak eta ordezkariak aurkeztea.

- Eskola Kontseiluko kideak lau urterako aukeratzeko dira, eta haietakoren batek dimisioa eman behar izanez gero (ikastetxean seme-alabarik ez dutelako, edo beste edozein arrazoi dela medio) hauteskunde prozesu berean izendatutako ordezkori batek baino ezingo du bete hutsunea. Hori dela eta, hauteskunde hauetan, karguetarako hautagaiak ez ezik, ordezkoriak ere izendatzea komeni da.
- Hautagaien kopurua eta hutsik dauden karguena bat baldin badatoz, ez da beharrezkoa hauteskundeak egitea; hautagaiak automatikoki bihurtuko dira kontseiluko kide.
- IGEak Kontseilurako kide bat izenda dezake, zuzenean, hauteskundeetara aurkezteko premiarik gabe; kide hori automatikoki bihurtuko da Kontseiluko kide. Gainerako kideak ez bezala, noiznahi ordezkatu ahal izango du beste kide batek, lau urteko iraunaldian.
- Hauteskundeak egiten badira, gurasoen partaidetza sustatzeari begira, posta bidezko botoa emateko aukera emango da. Horretarako, Mahaiko Lehendakariari gutun-azal bat igorri beharko dio hautesleak, hauteskunde egunaren aurretik, honako dokumentazio honekin: hauteslearen eskari sinatua, botoa posta bidez emateko eskubidea gauzatu nahi duela adieraziz; NANaren fotokopia, eta bozketa papera. Gutun-azala edonork eraman dezake ikastetxera; Zuzendaritzara eraman behar da. Ez dago botoa beste inorenagan eskuordetzerik.

5.- ZERBITZU PUBLIKOEN ALDEKO MOBILIZAZIOAK

Irailan hainbat mobilizazioa egiten ari dira, zerbitzu publikoen kalitatean zuzeneko eragina duten murrizketen kontra, hezkuntza sektorean, esaterako. Estatuan, batez ere manifestazio eta elkarretaratzeak egiten ari dira, adibidez, Madrilan, irailaren 15ean, *“Quieren arruinar el País, hay que impedirlo”* goiburuarekin. Itxuraz, “udazken beroa” izango da. Euskadin, zerbitzu publiko unibertsalen aldeko greba deialdia zabaldu dute zenbait sindikatuk (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CGT eta CNT) eta gizarte taldek, irailaren 26rako.

6.- 2012-2013 IKASTURTE HASIERARI BURUZKO DATU BATZUK

Euskadiko hezkuntza sindikatuek Euskadiko ikasturtearen hasierari buruzko iritziak eta datuak igortzen ari dira. Hezkuntza Sailak bestela dioen arren, sindikatuek adierazpen horietan diote hezkuntza publikoan ere murrizketak egiten ari direla; honako hauek, nagusiki:

- Eskola gastuen igoera, familien ekonomiari kalte ugari ekarriko dizkiona: jangelako kuotak igotzea, eskola materialak garestitzea, liburu maileguaren sistema bertan behera gelditu izana...
- Behar baino baliabide gutxiago. Hezkuntza Sailak berretsi duenez, ez da langile taldea handituko, nahiz eta ikasle kopuruak gora egin: eskola publikoko matrikulen kopuruan izandako igoeraren arabera, 300 irakasle gehiago beharko lirateke behar bezala erantzuteko, baina ez dute irakasle gehiago jarriko. Egoera horri aurre egiteko, ratioa igo dute, “de facto”: hain zuzen ere, %10, gelak bikoiztu behar ez izateko.
- Ordezkapenen murrizketa, bajak gertatzen direnean: ez da izango ordezkori 5. egunera arte, Lehen Hezkuntzan, eta 15. egunera arte, Bigarren Hezkuntzan.
- Heziketa premia bereziak dituzten ikasleen arretari begirako murrizketak: kulturartekotasunari buruzko proiektuetan, hizkuntzako indargarrietan... 80 irakasle besterik ez dira arituko eginkizun horietan.

Bestalde, BAIKARAK beste neurri batzuk ere salatu nahi ditu, zuzenean IGEen jarduerekin lotura dutenak: diru laguntzak %10 murriztu dira, eta ezabatu egin da eskola orduz kanpoko jardueren ordutegirako atezainaren irudia. Gainera, murriztu egin da ikastetxeetan egin beharreko lanetarako dirua ere; alde batetik, udalek proiektu gutxiago aurkeztu dituztelako Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatuz (%60).

Eta, horrekin guztiarekin batera, ez dugu ahaztu behar Madrilgo gobernuak hartutako hainbat neurri, dagoeneko erkidego batzuetan aplikatzen ari direnak (ratioen igoera, irakasleen eskola orduen igoera...) epai judizialaren zain daudela, Eusko Jaurlaritzak helegitea ezarri zuela eta.

7.- HEZKUNTZA KALITATEAREN HOBEKUNTZARAKO LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUA (LOMCE)

2002an, PPK gehiengo osoa zuelarik, Jose M^a Aznar buru zuen gobernuak LOCE deritzon hezkuntza legea onartu zuen, baina ezin izan zuten aplikatu, 2004an gobernu aldaketa izan zelako. PSOE agintera iritsi zelarik, beste lege bat onartu zuten, LOE deritzona; lege hura 2006an ezarri zuten, eta horrek jarraitzen du indarrean

gaur egun ere. 2011ko abenduan, berriro aldatu zen gobernuaren (PPren gehiengo osoa), eta iragarri zuten lehentasunezko helburua izango zela gaur egungo LOEaren erreforma. Hala, Espainiako estatuan 1978an hezkuntza legea indarrean ezarri zenetik egingo den zazpigarren legea izango da; horrek esan nahi du bitarte horretan aldaketa handiak gertatu direla edukietan, ikasketen egituretan eta ikastetxeen antolaketa.

Uztailaren 9an, Madrilgo gobernuaren Hezkuntza Ministerioak hezkuntzaren erreformarako proposamenaren lehen zirriborroa zabaldu zuen jendaurrean: Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoaren Aurreproiektua. Zirriborro hark aldaketa batzuk eta LOCE hutseginean ageri ziren proposamen asko biltzen zituen. Dokumentu horren arabera, erreformaren helburu nagusia da *“hezkuntzaren kalitatea hobetzea, abiapuntu hartuta kalitate hori “outputaren” arabera neurtu behar dela (ikasleen emaitzak) eta ez “inputaren” arabera (inbertsio maila, irakasle kopurua, ikastetxe kopurua, etab.)”*.

Aurrerago, irailaren 13an, “El País” egunkariak Hezkuntza Ministerioa lantzen ari den legearen erreformarako zirriborroaren beste neurri batzuen berri eman zuen. Bi informazioak irakurrita ondoriozta daitekeenez, zirriborroak proposatuko dituen neurri adierazgarrienak hauek dira:

- Ikasgai eta ibilbideen kopurua murriztea, eta ikasgai instrumentalaren eskola orduen kopurua igotzea, bai DBHn bai Batxilergoan.
 - Etapa bakoitzaren amaieran kanpo ebaluazioak egitea (LHko 6. mailan, DBHko 4. mailan, Batxilergoko 2. mailan). Ebaluazio horiek gobernuak diseinatu ditu, gutxienez irakaskuntzei dagokienez, eta autonomia erkidegoek, gainerakoei dagokienez. DBHko eta Batxilergoko azken ebaluazioak amaierako ebaluazio edo *errealizazio* modukoak izango dira; hau da, ikasle batek DBHko 4. maila eta Batxilergoko 2. maila gainditu arren errebalidazio gaintzen ez badu, ez du lortuko titulua.
 - DBH amaitutakoan (16 urte), titulua lortzeko errebalidazio gaintitu beharko da. Ikastetxetik kanpoko azterketa bat izango da, eta Batxilergoan egin nahi den edo Lanbide Heziketara jo nahi den, horren arabera. Azterketa horretara aurkeztu ahal izango dira 4. mailan bi irakasgai edo gutxiago gaintitu gabe utzi dituzten ikasle guztiak; azterketa gaintuz gero, titulua eskuratu, eta ikasketak egiten jarraituko dute. Batxilergoan, 2002ko LOEaren eskemari helduko zaio. Batxilergoko titulua eskuratu eta unibertsitatean sartzeko, errebalidazio gaintitu beharra dago. Unibertsitateek beren ikasketetara sartzeko azterketak egin ahal izango dituzte, hala nahi izanez gero. Kasu horretan, ikasleak onartzeko azken notaren %40 baino ez du hartuko probak; gainerako %60a Batxilergoko notaren arabera izango da. Unibertsitate bakoitzak erabakiko du bere ikasketetan matrikulatzeko zenbateko balioa emango dion ebaluazio horri, edo nota jakin bat, azterketa gehigarri bat egin edo elkarriketa bat nahi duen.
 - Ikastegiaren espezializazioa sustatzea.
 - Autonomia handiagoa ematea ikastegiei, kalitatea hobetzera begirako ekimenak sustatzeko eta garatzeko. Ekimen horien artean ageri dira zuzendaritza taldean funtzioak bereiztea; zuzendaritzak **erabaki** funtzioa beteko du, eta Eskola Kontseiluak, berriz, **kontsulta** soilekoa. Horrek esan nahi du Eskola Kontseiluak kontsulta hutserako organoak izango direla, eta ez erabaki organoak; hala, gurasoen galdu egingo dute ikastetxe eta institutuaren orain arte zuten erabakitzeko ahalmena. Legelari batzuen arabera, konstituzioaren kontrakoa litzateke neurri hori, urratu egingo bailuke Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua, zeinak baita irakasle, guraso eta ikasleek parte hartuko dutela funts publikoek sostengaturiko ikastetxeen kontrolean eta gestioan. Kasu honetan, partaidetza kontsulta soilera mugatzen dela joz gero, eztabaida sortuko litzateke.
- Era berean, berriro egingo dira zuzendariak aukeratzeko irizpideak, eta erkidegoko administrazioak indar gehiago izango du erabaki horretan. Orain arte, gurasoen eta irakasleen erabakiak zuzendaria aukeratzeko erabakiaren %60 betetzen zuen. Orain, aldiz, haien botoek %30eko balioa baino ez dute izango. Administrazioaren hitza, beraz, erabakigarria izango da. Zuzendaritzarako hautagaiek merezimendu lehiaketa egin beharko dute, alde aurretik egiaztapen bat eskuratuta.
- Gobernuaren Hezkuntza Ministerioak zehaztuko ditu “oinarrizko gaitasunak bereganatzeko beharrezko edukiak, eta eskola ordutegiaren %65 eskainiko zaie eduki horiei, hizkuntza ofizialak diren autonomia erkidegoetan (esaterako, Euskadin), eta %75, halakorik ez duten autonomia erkidegoetan”. Gaur egun indarrean dagoen legeak (LOE, 2006an onartua) %55eko gutxienezko edukiak finkatzen ditu hizkuntza ofizialak diren erkidegoetan, eta %65ekoak, gainerakoan. Horrek esan nahi du gobernu zentralak %10 handituko duela estatuko finkatzen dituen gutxienezko edukien ehunekoa. Neurri horrek ikasgai guztietan izango du eragina: Matematikan, Historian edo Herritartasuna eta Konstituzioan, Herritartasunerako Hezkuntzaren ordezkian.

- **Oinarrizko Lanbide Heziketa:** LHko ziklo berri bat sortuko da, 15 urtetik aurrerako ikasleentzat, irakasleek ikaslea gaizki dabilera ikusiz gero eta familiek onespena emanez gero erabiltzeko. Oinarrizko Lanbide Heziketa deritzo, eta gaur egungo Lanbide Hastapenerako Programak ordezkatuko ditu. Haiekin alderatuta, desberdintasun nagusia da ez dutela aukera emango DBHko titulua eskuratzeko, ezta zuzenean erdi mailako graduko LHra igarotzeko ere: azterketa egin beharko da horretarako. Hori bai, legearekin batera sortuko den oinarrizko LHko titulua eskuratzeko bidea emango du.
 - **Zientzia Aplikatuak.** Batxilergora edo LHra sartzeko ibilbideak DBHra aurreratuko dituzte (14 urterekin); modalitateko ikasgai bakarra izango dute, eta Matematika, ibilbide baten edo bestearen arabera egokitua. Lagarren mailan (15 urte) ikasleek lau ikasgai komun izango dituzte: Gorputz Heziketa, Hizkuntza (eta hizkuntza ofizialkidea, halakorik badago), modalitateko bi, eta hautazko bat. Bide akademikokoak Fisika eta Kimika, eta Biologia eta Geologia izango dira; edo Geografia eta Historia, eta Latina; eta LHkoak, berriz, Lanbideari Aplikatutako Zientziak, eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak.
- Legeak dioenez, ikasleek aukera izango dute iritzia aldatzeko, alegia, bide batek ez du bestea ixten; baina errebalida ez da berdina izango LHrako eta Batxilergorako eta, horren ondorioz, oso zaila izango da lehen erabakia hartu ondoren aldatzea. Azkenean, tituluaren amaierako ebaluazioa egiteko "hautatutako aukera agertuko da".
- **Nahitaezko lekualdatzeak:** Autonomia erkidegoek "beren destinoaz bestelako ikastetxetara lekualdatu ahal izango dituzte langile funtzionarioak", eta horretara behartuta egon daitezke, salbuespenezko kasuetan, horren ondorioz bizitokia aldatu behar izanez gero ere: "Langile funtzionarioek nahitaezko lekualdatzeetarako araz ezarritako kalte-ordainak besterik ezingo dituzte jaso".
 - Ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxeekiko hezkuntza itunei eustea.

Proiektuaren zirriborroa datozen asteetan aurkeztuko dute Ministro Kontseiluan; hark onartu ondoren, Gorte Nagusietara eta Senatura igoeriko dute, eta behin betiko onespena datorren udaberriaren amaieran emango zaio, aurreikuspenen arabera, PPK gehiengo osoa duela kontuan hartuta; horrenbestez, baliteke datorren ikasturtean, 2013-2014 indarrean egotea.

8.- IGEen Jardunbide Egokien II. Lehiaketan saritutako esperientziak aurkezteko IGEen arteko topaketa

Lehiaketaren 2. Edizioan, honako IGE hauek eskuratu dute saria:

- 1. saria (1.500 euro). Maestro Garcia Rivero – Atxuri LHko IGEa (Bilbo): "Zientzia azoka"
- 2. saria (1.000 euro). Sasoeta-Zumaburu LHko "Burunzpe" IGEa (Lasarte): "AMPA 2.0"
- 3. saria (500 euro). Zurbaran LHko IGEa (Bilbo): "Día del trabajo comunitario"

Accesitak:

- Altzaga LHko IGEa (Erandio): "Implantación de auditoría de puntos críticos en la gestión de la cocina de Altzaga-Erandio"
- Ruperto Medina LHko "Jaikin" IGEa (Portugalete): "Proyecto intercultural de familias amigas: Conocer conociéndonos"
- Koldo Mitxelena LHko "Zapirain" IGEa (Errenteria): "Euskal kantuen txokoa"

Aurreko ikasturtean bezala, EHIGEk jardunaldi bat antolatu nahi du saritutako esperientzia horiek aurkezteko; oraindik zehaztu gabe daude eguna eta tokia.

9.- Galde-eskeak